Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko apirilaren 16a, asteartea — 73 — Martes, a 16 de abril de 2019



## LEGAZPIKO UDALA

### Gizarte Zerbitzuen Saila

*Iragarkia*

2019ko apirilaren 8an egindako Gobernu Batzordeak honako hau adostu du:

1. Legazpiko Udalak 2019. urterako ezarri dituen Gizarte Zerbitzuen, saileko diru-laguntzen programak arautzen dituzten oinarriak eta deialdiak onartzea.

2. Oinarri horiek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Legazpi, 2019ko apirilaren 10a.—Koldobike Olabide Huelga, alkatea. (2387)

*1. Legazpin, beraien jarduera gizarte zerbitzuen alorrean garatuko duten elkarteei diru-laguntzak emateko oinarri espezifikoak.*

*1. Xedea.*

Deialdi honen xedea da beraien ohiko jarduera Legazpiko udalerrian garatzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteei diru-laguntzak eskuratzeko sarbidea arautzea eta diru-laguntzak ematea.

Lehentasuna izango dute ondorengo pertsona-taldeei zuzenduko zaizkien jarduerak:

— Mendekotasuna edo ezintasunaren bat duten pertsonak.

— Gizartetik baztertuak izateko arriskua duten pertsonak: etorkinak, gutxiengo etnikoak, ...

— Egoera ahulean dauden emakumeak: ama guraso bakarra.

Ondorengo jarduerak izango dute lehentasuna:

— Mendekotasuna duten, ezintasunen bat duten, gizartetik baztertua izateko arriskuan dauden eta bereziki diskriminazio anitzeko egoerak (emakume ezinduak, ama guraso bakarrak, emakume etorkinak edo gutxiengo etnikoko emakumeak...) jasaten duten pertsonei arreta eskaintzeko, integratzeko/gizarteratzeko eta/edo laguntzeko diren jarduerak.

— Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzera eta denboraz antzematera bideratutako jarduerak.

— Gizartetik baztertuak izateko bestelako egoerei aurrea hartzeko jarduerak.

— Borondatezko lana gizarte-eremuan sustatzeko jarduerak.

— Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko da proposatuko diren jarduera guztietan. Horrela, Urola Garaia eskualdean emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Planaren Gizarte zerbitzuen alorrean sartzen diren jabekuntzako eta erantzunkidetasuneko jarduerak lehenetsiko dira.

— Elkarte desberdinen arteko lankidetza eta koordinazioa bultzatuko duten jarduerak.

— Kultur aniztasuna sustatzeko jarduerak.

Gizartetik baztertuak izateko arriskuan dauden taldeekin, etorkinekin, gutxiengo etnikoekin Gizarte zerbitzuen eremuan garatuko diren jarduerek edo proiektuek diru-laguntza jasotzeko aukera izan dezaten, ezinbestekoa izango da udaletxeko gizarte-

## AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI

### Área de Servicios Sociales

*Anuncio*

La Comisión de Gobierno Local celebrada el 8 de abril de 2019 ha adoptado el siguiente acuerdo:

1. Aprobar las bases específicas reguladoras y convocatorias de los programas de subvenciones de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Legazpi para el año 2019.

2. Publicar dichas Bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Legazpi, a 10 de abril de 2019.—La alcaldesa, Koldobike Olabide Huelga. (2387)

*1. Bases específicas para la concesión de subvenciones a asociaciones que desarrollen su actividad en el ámbito de los servicios sociales en Legazpi.*

*1. Objeto.*

Es objeto de la presente convocatoria, la regulación del acceso y concesión de subvenciones a entidades asociativas sin ánimo de lucro que desarrollen su actividad habitual en el municipio de Legazpi, en el ámbito de los Servicios Sociales.

Tendrán prioridad las actuaciones destinadas a los siguientes colectivos:

— Personas dependientes o con discapacidad.

— Personas en riesgo de exclusión social: inmigrantes, minorías étnicas, etc.

— Mujeres en situación vulnerable como: monomarentales, etc.

Tendrán prioridad las siguientes actividades:

— Las dirigidas a la atención, integración/inserción y/o el apoyo a personas dependientes, con discapacidad o en riesgo de exclusión social y en especial a aquellas que sufren situaciones de discriminación múltiple (como mujeres discapacitadas, mujeres monomarentales, mujeres inmigrantes o mujeres de minorías étnicas...).

— La prevención de la violencia contra las mujeres y su detección temprana.

— La prevención de otras situaciones de exclusión social.

— La promoción del voluntariado en el ámbito social.

— La promoción de la igualdad entre hombres y mujeres en todas las actividades que se propongan. En ese sentido, se priorizarán las actividades de empoderamiento y corresponsabilidad que se enmarcan en el área de Servicios Sociales del II Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la comarca de Urola Garaia.

— La colaboración y la coordinación entre distintas asociaciones.

— La promoción de la interculturalidad.

Para poder optar a subvención, las actividades o proyectos que se desarrollen en el ámbito de los servicios sociales con colectivos en riesgo de exclusión social, inmigrantes, minorías étnicas necesariamente deberán estar coordinadas y contar con

EK\CV GAO-I-2019-02387

langileekin koordinatuta egotea eta haien oniritzia jasotzea. Modu berean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak Urola Garaia mankomunitateko Berdintasun teknikariarekin koordinatuta garatuko dira eta haren oniritzia izan beharko dute.

Diruz lagunduko diren jarduerak ondoko kategoriatan banatuko dira:

a) Sentsibilizazioa.

b) Prestakuntza, informazioa eta/edo gizarteratzea.

c) Aisialdiko eta garapen pertsonalerako jarduera integratzaileak.

d) Besteak.

Udalak, herritarrentzat oro har, aisiako antzeko jarduerak antolatzen ditu baina horiek ez dira diruz lagunduko, hala nola, eskulanak, euskara eta abar. Diruz laguntzekotan, jarduera horien hartzaileak ezaugarri bereziak dituztela eta gainerako jardueratan parte hartu ezin dutela frogatu beharko da eta/edo landa-eremuan eskainiko diren jarduerak izango dira.

Ez dira diruz lagunduko administrazioan dagoeneko dauden zerbitzuak bikoiztea ekarriko duten proiektuak.

Modu berean ez dira diruz lagunduko hezkuntza arloarekin zuzenean eta berarekin bakarrik zerikusia duten jarduerak (irakasleei edo hezitzaileei laguntzeko eta ikuskatzeko ekintzak....).

Proiektuen sustatzaileak bere egoitza Legazpin ez baina Urola Garaia mankomunitateko udalerri batean duenean eta egin beharreko jarduerak Mankomunitate mailan egingo dituenean, Legazpin gauzatuko diren ekintzak bakarrik lagunduko dira diruz eta, hortaz, udalerri honetarako eskari berezia aurkeztu beharko du eta horien gaineko fakturekin justifikatu beharko ditu.

Dena den, a) eta b) kategoriako diruz lagundutako kanpoko ekintzak herritar orori irekita egongo dira nahitaez eta Legazpiko Kultur etxean edo Latxartegi zinean gauzatuko dira, ahalik eta pertsona kopuru handiena elkartzeko aukera eskainiz. Ekintzak Kultur etxean ezin direla egin behar bezala justifikatzen bada, kasu horretan, ekintza horiek barrera arkitektonikorik gabeko toki batean egin beharko dira.

Legazpiko bizilagunen parte hartzea bultzatzeko, batik bat a) eta b) ataleko jardueretan, erakunde antolatzaileek honela egingo dute jarduera horien zabalkundea:

— Legazpiko herri-kronika izango duen komunikabideak erabiliko dira, euskaraz zein gaztelaniaz (adibidez: Hitza, DV eta Noticias de Gipuzkoa); horretarako egunkari horietako berriemaileekin hitz egingo da zuzenean.

Sentsibilizazio-kanpainetan sartzen ez diren hitzaldiak antolatzen dituzten erakundeek elkarren arteko koordinazioa bermatu beharko dute hitzaldi bikoitzak eman ez daitezen.

Nolanahi ere, hitzaldia, tailer edo antzekoak eskainiko duenari ordaintzeko eskainiko den gehienezko kopurura orduko 125,00 € izango da (gehi beste 35,00 €raino kilometrajea ordaintzeko). Karteletarako eta propagandarako diruz lagunduko den gehienezko prezioa 60,00 €koa izango da, elkarte bakoitzeko.

Edozelan ere, diruz lagundutako ekintzak urte hasieratik egongo dira ekintzen programa orokorrean sartuta eta erakundearen aurrekontuan aurreikusita. Eta ekintza bat baino gehiago baldin badira, guztiak urtean zehar banatuta egongo dira eta ez azkeneko hilabeteetan pilatuta, diru-laguntza jasoko den edo ez baldintzatuta.

*2. Elkarte onuradunak.*

Legazpin edo Urola Garaia mankomunitateko herriren batean egoitza duten elkarteek jaso ahal izango dute diru-laguntza; halaber, elkarte horiek Legazpiko udalerrian garatu beharko dituzte beraien ekintzak eta, beti ere, Gizarte Zerbitzuen alorrean.

el visto bueno de las Trabajadoras Sociales del Ayuntamiento, así mismo, las actividades dirigidas a la promoción de la igualdad entre hombres y mujeres deben estar coordinadas y contar con el visto bueno de la técnica de Igualdad de la Mancomunidad Urola Garaia.

Las actividades objeto de subvención se distribuyen en las siguientes categorías:

a) Sensibilización.

b) Formación, información y/o inserción.

c) Actividades de ocio y desarrollo personal integradores.

d) Otros.

No se subvencionaran actividades de ocio similares a las que se ofrezcan desde el Ayuntamiento para el público general como manualidades, euskera etc, a no ser que se justifique y argumente adecuadamente que las personas destinatarias tienen características especiales que les impidan acceder o participar en las ofrecidas para el público en general y/o se realicen en el ámbito rural.

No se subvencionaran proyectos que dupliquen los servicios ya existentes en la administración.

Tampoco se subvencionaran actividades relacionadas directa y únicamente con el ámbito educativo (como actividades de apoyo y supervisión para profesorado, educadores... etc.).

En los proyectos cuyo promotor tenga su sede fuera de Legazpi pero en alguno de los municipios de la Mancomunidad Urola Garaia y efectué actuaciones globales a nivel de Mancomunidad, sólo se subvencionarán las actividades que se lleven a cabo efectivamente en Legazpi y tendrán que presentar la solicitud diferenciada para este municipio y justificarlo con facturas exclusivas.

En todo caso las actividades subvencionadas de las categorías a) y b) que no sean al aire libre deberán estar abiertas al público en general y llevarse a cabo en la Casa de Cultura de Legazpi o en el cine Latxartegi para favorecer el acceso al mayor número de personas posibles. En caso de que sea imposible la celebración de la actividad en la Casa de Cultura por motivo justificado, las actividades deberán llevarse a cabo en locales accesibles y sin barreras arquitectónicas.

Para promover la máxima participación posible del vecindario de Legazpi sobre todo en las actividades de las categorías a) y b) las entidades organizadoras deberán informar de las mismas:

— A través de prensa escrita en euskera y castellano que cuente con crónica local de Legazpi (como por ejemplo: Hitza, DV y Noticias de Gipuzkoa) contactando directamente con los corresponsales correspondientes.

Las entidades que organicen charlas, talleres y similares, sin que estos estén incluidos en campañas de sensibilización, deberán coordinarse entre ellas para evitar duplicidades.

En todo caso el precio máximo hora subvencionable para ponentes de charlas, talleres o similares será de 125,00 €/hora (más hasta un tope de 35,00 € para kilometraje). Y el precio máximo subvencionable de cartelera y propaganda será de 60,00 € por entidad.

En todo caso las actividades subvencionadas deberán estar incluidas desde principios de año tanto en el programa general de actividades, como en el presupuesto de la entidad. Y si son múltiples actividades deberán estar distribuidas a lo largo del año y no concentrarse todas en los últimos meses del año condicionadas a la recepción de la subvención.

*2. Entidades beneficiarias.*

Podrán optar a las subvenciones las asociaciones o entidades que tengan su sede en Legazpi o en alguno de los municipios integrantes de la Mancomunidad Urola Garaia y realicen actividades en el ámbito de los Servicios Sociales en el Municipio de Legazpi.

EK\CV GAO-I-2019-02387

Dena den Legazpiko erakundeek edo Legazpin egoitza edo ordezkaritza duten erakundeek izango dute lehentasuna. Eta gainerakoen artean honako elkarteak lehenetsiko dira: Legazpin bazkideak dituztenak edo ekintzen sustatzaileak dituztenak. Hala ere, ezinbesteko baldintza izango da antolatutako jardueren erabiltzaileak legazpiarrak izatea.

Salbuespen gisa, udalerrirako interesgarriak direla iritzitako gizarte-jarduerek ere diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte, sustatzaileek gizarte-egoitza Urola Garaiko udalerrietan ez badute ere baina, dena den, diruz lagunduko den ekintza Legazpiko udalerriak burutu beharko da edo legazpiarrekin.

*3. Eskabideak eta aurkezteko epea.*

30 eguneko epean aurkeztu behar dira eskabideak, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

*4. Ekarri beharreko agiriak.*

Diru-laguntza jaso ahal izateko eskaerarekin batera ondoko agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Diru-laguntza eskaeraren inprimakia modu egokian beteta.

b) Erakunde eskatzailearen ordezkariaren edo arduradunaren Nortasun Agiriaren fotokopia. Pertsona hau erakundearen estatutuetan agertzen ez bada, eskatzailea eskaera egin duen erakundearen ordezkari edo arduraduna dela egiaztatuko duen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

c) Erakundearen estatutuen eta IFKren fotokopia.

d) Eskaera egin duen erakundeak irekita duen kontu korrontearen titulartasuna egiaztatuko duen aurrezki-kutxaren edo banketxearen ziurtagiria.

e) Sexuagatiko diskriminaziorik jasan ez duela egiaztatuko duen zinpeko adierazpena.

f) Aurtengo urtarrilaren 1ean erakundeak duen bazkide-kopurua (kuota ordaintzen dutenak) azalduko duen zinpeko aitorpena.

g) Dagokionean, zinpeko aitorpena, erakundearen zuzendaritza batzordea osatzen duten edo diruz lagunduko diren jarduerak sustatzen duten Legazpiko pertsonen identifikazio-datuekin. (Bakarrik Legazpin egoitza edo ordezkaritza ez duten elkarte eta erakundeen kasuan).

h) Egiaztatzea zerga obligazioak betetzen dituztela Gizarte Segurantzarekin, Legazpiko Udalarekin eta Foru Ogasunarekin (edo Estatuko Ogasunarekin hala badagokio).

i) Erakundearen jarduera orokorraren gaineko programa eta eskatutako diru-laguntzarekin burutu nahi den proiektu edo programaren gaineko txosten xehatua, proiektu, ekintza edo programa horrekin lortu nahi diren helburuak adieraziz (eredu berean).

j) Aurreikusitako gastuen eta sarreren aurrekontuaren zinpeko aitorpena, entitate edo elkartearen jarduera orokorrarena (ekintza guztiak) nahiz diru-laguntza eskatzen deneko proiektu, jarduera edo programa espezifikoena (eredu berean).

k) Informazioa osatzen duen eranskin bat eta eskabideak baloratzeko kontuan hartzen diren irizpideak puntuatzeko garaian lagungarri izan daitekeen edozein informazio.

l) Berdintasun-politikak hartuta dituzten erakundeek, kontu hori behar bezala baloratu ahal izateko eranskin batean azalduko dute justifikatu ahal izan dezaketena: diagnostikoak eta berdintasun planak, zuzendaritza organoetan ordezkaritza paritarioaren arauen frogagiria, hizkuntza ez sexista erabiltzeko arauak eta erabiliko diren materialak, genero desberdintasunak zuzentzeko hartu diren neurriak.

En todo caso tendrán prioridad las asociaciones o entidades con sede o delegación en Legazpi. Y del resto se priorizaran las que cuenten con socios y socias de Legazpi, o entre las personas integrantes de la junta directiva o entre las promotoras de las actividades haya personas vecinas de Legazpi siempre y cuando las personas destinatarias de las actividades sean Legazpiarras.

Podrán también ser objeto de ayudas, con carácter muy excepcional, aquellas actividades sociales consideradas de interés para el municipio, aunque sus promotores no tengan domicilio social en ninguno de los Municipios de la Mancomunidad Urola Garaia y en todo caso se tendrán que llevar a cabo en Legazpi o con Legazpiarras.

*3. Solicitudes y plazo de presentación.*

Las solicitudes deberán de presentarse en el plazo de 30 días naturales, contando a partir del día siguiente de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*4. Documentación a aportar.*

Para optar a las presentes ayudas deberá presentarse la siguiente documentación:

a) Solicitud de subvención en impreso normalizado específico, debidamente cumplimentado.

b) Fotocopia del DNI de la persona representante o responsable de la entidad solicitante. Si esta persona no aparece en los estatutos de la entidad, hay que presentar un Certificado que acredite que el/la solicitante es responsable o representante de la entidad.

c) Copia de los estatutos y del CIF de la entidad.

d) Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de la cuenta corriente abierta por la entidad solicitante.

e) Declaración jurada de no haber discriminado por razón de sexo.

f) Declaración jurada en la que se haga constar el n.º real de personas socias de Legazpi (las que pagan la cuota) desglosado por sexos, a fecha de 01-01-del año en curso.

g) En su caso, declaración jurada con los datos identificativos de las personas de Legazpi (desglosado por sexos) que formen parte de la junta directiva de la entidad o sean promotores de las actividades a subvencionar. (Sólo para asociaciones y entidades cuya sede social o delegación no esté ubicada en Legazpi).

h) Acreditación de que en el momento de presentar la solicitud la entidad se halla al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias frente al INSS, Ayuntamiento de Legazpi y la Hacienda Foral (o Estatal si procediera).

i) Programa resumido tanto de la actividad general de la asociación o entidad, como del proyecto, actividad o programa específico que pretende ser subvencionado, con indicación de los objetivos perseguidos (incluido en el mismo modelo).

j) Declaración Jurada del Presupuesto de Gastos e Ingresos previstos, tanto de la actividad General (todas las actividades) de la entidad o asociación como de los proyectos, actividades o programas específicos para los que se solicite la subvención (incluido en el mismo modelo).

k) Un documento anexo que amplíe y complete la información y que justifique, aclare o facilite la puntuación de los criterios de valoración.

l) Las entidades que tengan integradas políticas de igualdad, para poder valorarlas adecuadamente deberán adjuntar en documento anexo lo que puedan justificar: diagnósticos y planes de igualdad, justificante de las normas de representación paritaria en los órganos de dirección, normas de uso no sexista del lenguaje y de los materiales que se elaboren, las medidas que han tomado para corregir las desigualdades de género, etc.

EK\CV GAO-I-2019-02387

*Oharra:* Zure eskubidea da ez aurkeztea eskatzen den dokumentazioa, baldin eta Administrazioak dagoeneko bere esku badauka edota ez bada eskatzen prozedurari aplika dakizkiokeen arauetan (Administrazio Publikoen eta Administrazio-Prozedura Erkideko Araubide Juridikoko urriaren 1eko, 39/2015 Legeko 53 artikuluan). Eskubide hau erabil ahal izateko, eskaerako «emandako dokumentazioa» atalean, emandako dokumentuen informazioa beteko du.

*5. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.*

Eskaerak Gizarte Zerbitzuen administrazio unitateak izapidetuko ditu.

Diru-laguntzaren emakida lehiakortasun-erregimenean egingo da; hortaz, kasu bakoitzean zehaztutako irizpideak aplikatu eta diruz lagunduko diren jardueren kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatuko duen laguntza kopurua soilik aukeratuko da.

Dagozkion erabakiak hartzeko eta jakinarazteko gehienezko epea 4 hilabetekoa izango da, deialdi honetan eskaerak aurkezteko ezarritako epea amaituko den egunetik zenbatzen hasita. Artikulu honetan xedatutako epeari dagokionez, abuztua baliogabeko hilabetetzat hartuko da.

Ezarritako epeetan erabakiaren jakinarazpenik ez bada egin, dagozkion eskaerak ez direla onartu ulertuko da, administrazio-prozeduraren araudian ezarritako isiltasun-ondorioetarako.

*6. Eskaerak baloratzeko irizpideak.*

Oinarri hauetako diru-laguntzak eskatuko dituzten eskatzaileei emango zaizkien zenbatekoak kalkulatzeko, talde bakoitzarentzako ezarriko diren ondoko irizpideen araberako baremoak zehaztuko dira.

A) Erakunde eskatzaileari dagokionez, 50 punturaino, ondoko alderdiak aintzat hartuta.

A1) Elkartearen edo erakundearen egoitza edo ordezkaritzaren kokapenari dagokionez (17 punturaino).

A2) Egoitza Legazpitik kanpo duten elkarte edo erakundearen kasuan bakarrik. Legazpiko bazkideak izatea edo zuzendaritza batzordean edo jarduera sustatzean legazpiarrek parte hartzea (5 punturaino).

A3) Elkarteak frogatuta duen ibilbidea, udalerrian urte askotan lan egin eta gero (3 punturaino).

A4) Erakunde onuradunek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen dituzten politikak eta jarduerak garatzen eman duten ibilbidea (berdintasunaren diagnostikoa eginda izatea, berdintasun planak, erakundearen zuzendaritza-organoetan ordezkaritza paritarioa bermatzeko arauak izatea, egingo diren materialetan hizkuntzaren erabilera ez-sexista izateko arauak izatea, genero-desberdintasunak zuzentzeko neurriak hartu izana...) (13 punturaino).

A5) Aurreko urteetan eten gabe jasotako diru laguntzak (3 punturaino).

A6) Tamaina eta ordezkaritza (Legazpiko bazkide kopuru erreala) (3 punturaino).

A7) Bazkideen ezaugarriak: lehentasuna izango dute ezintasunen bat duten pertsonak eta familiako kideak, edo gizartetik baztertuak izateko arriskuan daudenak (6 punturaino).

A8) Erakundearen finantza-baliabideen proportzionaltasuna (5 punturaino).

B) Proposatutako programaren edo programen ezaugarriak aintzat hartuta:

B1) Sentsibilizazio-jarduerei dagokionez, 50 punturaino, ondoko puntuak kontuan hartuta:

*Nota:* Es un derecho de la ciudadanía, no presentar documentos no exigidos por las normas aplicables al procedimiento de que se trate, o que ya se encuentren en poder de la Administración actuante (artículo 53 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común). Para poder ejercer este derecho, en el apartado Documentación aportada anteriormente de la solicitud, cumplimentará la información de los documentos entregados.

*5. Unidad administrativa encargada de la tramitación.*

Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Servicios Sociales.

La concesión de la subvención se efectuará en régimen de concurrencia competitiva, de manera que tan sólo se seleccionará, conforme a los criterios fijados en cada caso, un número de ayudas que asegure la calidad y viabilidad de las actividades subvencionadas.

El plazo máximo para dictar y notificar las resoluciones correspondientes será de 4 meses, contados a partir de la finalización del plazo para presentación de solicitudes indicando en la presente convocatoria. A los efectos del plazo establecido en este artículo, el mes de agosto se considerara inhábil.

La falta de notificación de la resolución en los plazos establecidos podrá considerarse como denegación de las correspondientes solicitudes a los efectos de silencio fijados en la normativa sobre procedimiento administrativo.

*6. Criterios de valoración de las solicitudes.*

Para el cálculo de los importes a conceder a los solicitantes que opten a las ayudas en las presentes bases, se concretan los baremos de acuerdo a los siguientes criterios.

A) En relación a las características de la entidad solicitante: hasta 50 puntos, según los siguientes aspectos:

A1) En cuanto a la ubicación de la sede social o delegación de la asociación o entidad (hasta 17 puntos).

A2) Solo para las asociaciones o entidades con sede fuera de Legazpi. Se valorara que tengan socios/as de Legazpi o haya legazpiarras entre las personas integrantes de la junta directiva o promotores de la actividad (hasta 5 puntos).

A3) Trayectoria demostrada por la entidad en el Municipio con los años continuados de trabajo de la entidad en el Municipio (hasta 3 puntos).

A4) Trayectoria de las entidades beneficiarias en políticas o actuaciones dirigidas a la igualdad de mujeres y hombres (contar con diagnósticos de igualdad, planes de igualdad, normas de representación paritaria en los órganos de dirección de la entidad, normas de uso no sexista del lenguaje en todos los materiales que se elaboren, se han tomado medidas para corregir las desigualdades de género (hasta 13 puntos).

A5) Subvenciones recibidas con continuidad en años anteriores (hasta 3 puntos).

A6) Volumen y representatividad (n.º real de socios y socias de Legazpi) (hasta 3 puntos).

A7) Características de las personas socias: tendrán prioridad las personas y familiares con discapacidad, riesgo de exclusión (hasta 6 puntos).

A8) Proporcionalidad de los recursos financieros de la entidad (hasta 5 puntos).

B) En relación a las características del programa o programas presentados:

B1) En relación a las actividades de Sensibilización, hasta 50 puntos, según los siguientes aspectos:

EK\CV GAO-I-2019-02387

B1.1) Sentsibilizazio-gaiaren eta Gizarte Zerbitzuetako lehentasunezko taldeen arazoen artean bat etortzea (mendeko pertsonak, baztertuak izateko arriskua duten pertsonak, pertsona ahulak) (10 punturaino).

B1.2) Jarduera burutzeko, elkarte desberdinen arteko lankidetza eta koordinazioa (10 punutraino).

B1.3) Aurkeztutako programa aurrera ateratzeko finantza-baliabideen proportzionaltasuna (10 punturaino).

B1.4) Programa diseinatzean, garatzean eta ebaluatzean genero-ikuspegia sartzea (ad.: estereotipo sexistak baztertuko dituen materialak erabili; hizkuntza ez-sexista erabili; jardueraren jasotzaile izango diren taldeetan emakumeen eta gizonen artean egon daitezkeen desberdintasunak sumatu; pentsatutako jardueretan emakumeen eta gizonen parte-hartze berdina sustatu; talde berezietan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen arrazoiak antzematea ahalbidetuko duten kontzientzia hartu edo kontzientziatze-prozesuak bultzatu eta desberdintasunarekin bukatzeko moduak (10 punturaino).

B1.5) Programa diseinatzean, garatzean eta ebaluatzean etorkinek edo gutxiengo etnikoko kideek parte hartzea (5 punturaino).

B1.6) Herrian proposatutako jardueren antzeko besterik ez izatea. (5 punturaino).

B2) Informazioa, prestakuntza eta/edo gizarteratzearen gaineko jarduerei dagokionez (60 punturaino), ondoko gaiak kontuan hartuta:

B2.1) Informazioa, prestakuntza eta/edo gizarteratzea helburu duen gaiaren eta Gizarte Zerbitzuetako lehentasunezko taldeen arazoen artean bat etortzea (10 punturaino).

B2.2) Onuradunen ezaugarriak (lehentasuna izango dute ezintasunen bat duten pertsonak eta familiako kideak, gizartetik baztertuak,...) (10 punturaino).

B2.3) Jarduera burutzeko, elkarte desberdinen arteko lankidetza eta koordinazioa (10 punturaino).

B2.4) Aurkeztutako programa aurrera ateratzeko finantza-baliabideen proportzionaltasuna (10 punturaino).

B2.5) Herrian proposatutako jardueren antzeko besterik ez izatea. (5 punturaino).

B2.6) Programa diseinatzean, garatzean eta ebaluatzean genero-ikuspegia sartzea (ad.: estereotipo sexistak baztertuko dituen materialak erabili; hizkuntza ez-sexista erabili; jardueraren jasotzaile izango diren taldeetan emakumeen eta gizonen artean egon daitezkeen desberdintasunak sumatu; pentsatutako jardueretan emakumeen eta gizonen parte-hartze berdina sustatu; talde berezietan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen arrazoiak antzematea ahalbidetuko duten kontzientzia hartu edo kontzientziatze-prozesuak bultzatu eta desberdintasunarekin bukatzeko moduak, eta abar) (10 punturaino).

B2.7) Programa diseinatzean, garatzean eta ebaluatzean etorkinek edo gutxiengo etnikoko kideek parte hartzea (5 punturaino).

B3) Aisialdiko eta garapen pertsonalerako jarduerei dagokienez, (50 punturaino), honako gaiak aintzat hartuta:

B3.1) Onuradunen ezaugarriak, (lehentasuna izango dute ezintasunen bat duten pertsonak eta familiako kideak, gizartetik baztertuak,...) (10 punturaino).

B3.2) Jarduera burutzeko, elkarte desberdinen arteko lankidetza eta koordinazioa (10 punturaino).

B3.3) Aurkeztutako programa aurrera ateratzeko finantza-baliabideen proportzionaltasuna (10 punturaino).

B3.4) Herrian proposatutako jardueren antzeko besterik ez izatea. (5 punturaino).

B1.1) Concordancia entre tema objeto de sensibilización y la problemática de los colectivos prioritarios de Servicios Sociales (personas dependientes, en riesgo de exclusión, vulnerables) (hasta 10 puntos).

B1.2) Colaboración y coordinación entre diversas asociaciones para llevar a cabo la actividad (hasta 10 puntos).

B1.3) Proporcionalidad de recursos financieros para el programa presentado (hasta 10 puntos).

B1.4) Incorporación de la perspectiva de género en el diseño, desarrollo y evaluación del programa (ej.: uso de materiales que no reproduzcan estereotipos sexistas, uso de un lenguaje no sexista; visibilización de las situaciones de desigualdad entre mujeres y hombres dentro de los colectivos específicos destinatarios de la actividad; desagregación de los datos por sexo; promover la participación igualitaria de mujeres y hombres en las actividades planificadas; promoción de procesos de toma de conciencia que permitan visualizar las causas de las desigualdades entre mujeres y hombres dentro de los colectivos específicos y las formas de combatirlas (hasta 10 puntos).

B1.5) Participación de personas inmigrantes o de minorías étnicas en el diseño, desarrollo y evaluación del programa (hasta 5 puntos).

B1.6) Inexistencia en la localidad de otras actividades similares a las propuestas (hasta 5 puntos).

B2) En relación a las actividades informativas, formativas y/o de inserción social (hasta 60 puntos), según los siguientes aspectos:

B2.1) Concordancia entre tema objeto de información/ formación y/o inserción y la problemática de colectivos prioritarios de Servicios Sociales (hasta 10 puntos).

B2.2) Características de las personas beneficiarias, (Tendrán prioridad las personas y familiares con discapacidad, riesgo de exclusión...) (hasta 10 puntos).

B2.3) Colaboración y coordinación entre diversas asociaciones para llevar a cabo la actividad (hasta 10 puntos).

B2.4) Proporcionalidad de recursos financieros para el programa presentado (hasta 10 puntos).

B2.5) Inexistencia en la localidad de otras actividades similares a las propuestas (hasta 5 puntos).

B2.6) Incorporación de la perspectiva de género en el diseño, desarrollo y evaluación del programa (ej.: uso de materiales que no reproduzcan estereotipos sexistas; uso de un lenguaje no sexista; visualización de las situaciones de desigualdad entre mujeres y hombres dentro de los colectivos específicos destinatarios de la actividad; desagregación de los datos por sexo; promover la participación igualitaria de mujeres y hombres en las actividades planificadas; promoción de procesos de concientización o toma de conciencia que permitan visualizar las causas de las desigualdades entre mujeres y hombres dentro de los colectivos específicos y las formas de combatirlas, etc.) (hasta 10 puntos).

B2.7) Participación de personas inmigrantes o de minorías étnicas en el diseño, desarrollo y evaluación del programa (hasta 5 puntos).

B3) En relación a las actividades de ocio y desarrollo personal (hasta 50 puntos), según los siguientes aspectos:

B3.1) Características de las personas beneficiarias, (Tendrán prioridad las personas y familiares con discapacidad, riesgo de exclusión) (hasta 10 puntos).

B3.2) Colaboración y coordinación entre diversas asociaciones para llevar a cabo la actividad (hasta 10 puntos).

B3.3) Proporcionalidad de recursos financieros para el programa presentado (hasta 10 puntos).

B3.4) Inexistencia en la localidad de otras actividades similares a las propuestas (hasta 5 puntos).

EK\CV GAO-I-2019-02387

B3.5) Programa diseinatzean, garatzean eta ebaluatzean genero-ikuspegia sartzea (ad.: estereotipo sexistak baztertuko dituen materialak erabili; hizkuntza ez-sexista erabili; jardueraren jasotzaile izango diren taldeetan emakumeen eta gizonen artean egon daitezkeen desberdintasunak sumatu; pentsatutako jardueretan emakumeen eta gizonen parte-hartze berdina sustatu; talde berezietan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen arrazoiak antzematea ahalbidetuko duten kontzientzia hartu edo kontzientziatze-prozesuak bultzatu eta desberdintasunarekin bukatzeko moduak, eta abar) (10 punturaino).

B3.6) Programa diseinatzean, garatzean eta ebaluatzean etorkinek edo gutxiengo etnikoko kideek parte hartzea (5 punturaino).

B4) Bestelako jarduerei dagokienez, (50 punturaino) honako gaiak aintzat hartuta:

B4.1) Onuradunen ezaugarriak, (lehentasuna izango dute ezintasunen bat duten pertsonak eta familiako kideak, gizartetik baztertuak...) (10 punturaino).

B4.2) Jarduera burutzeko, elkarte desberdinen arteko lankidetza eta koordinazioa (10 punturaino).

B4.3) Aurkeztutako programa aurrera ateratzeko finantzabaliabideen proportzionaltasuna (10 punturaino).

B4.4) Herrian proposatutako jardueren antzeko besterik ez izatea (5 punturaino).

B4.5) Programa diseinatzean, garatzean eta ebaluatzean genero-ikuspegia sartzea (ad.: estereotipo sexistak baztertuko dituen materialak erabili; hizkuntza ez-sexista erabili; jarduera-ren jasotzaile izango diren taldeetan emakumeen eta gizonen artean egon daitezkeen desberdintasunak sumatu; pentsatutako jardueretan emakumeen eta gizonen parte-hartze berdina sustatu; talde berezietan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen arrazoiak antzematea ahalbidetuko duten kontzientzia hartu edo kontzientziatze-prozesuak bultzatu eta desberdintasunarekin bukatzeko moduak, eta abar) (10 punturaino).

B4.6) Programa diseinatzean, garatzean eta ebaluatzean etorkinek edo gutxiengo etnikoko kideek parte hartzea (5 punturaino).

B3.5) Incorporación de la perspectiva de género en el diseño, desarrollo y evaluación del programa (ej.: uso de materiales que no reproduzcan estereotipos sexistas; uso de un lenguaje no sexista; visualización de las situaciones de desigualdad entre mujeres y hombres dentro de los colectivos específicos destinatarios de la actividad; desagregación de los datos por sexo; promover la participación igualitaria de mujeres y hombres en las actividades planificadas; promoción de procesos de concienciación o toma de conciencia que permitan visualizar las causas de las desigualdades entre mujeres y hombres dentro de los colectivos específicos y las formas de combatirlas, etc.) (hasta 10 puntos).

B3.6) Participación de personas inmigrantes o de minorías étnicas en el diseño, desarrollo y evaluación del programa (hasta 5 puntos).

B4) En relación a otras actividades (hasta 50 puntos) según los siguientes aspectos:

B4.1) Características de las personas beneficiarias, (tendrán prioridad las personas y familiares con discapacidad, riesgo de exclusión (Hasta 10 puntos).

B4.2) Colaboración y coordinación entre diversas asociaciones para llevar a cabo la actividad (hasta 10 puntos).

B4.3) Proporcionalidad de recursos financieros para el programa presentado (hasta 10 puntos).

B4.4) Inexistencia en la localidad de otras actividades similares a las propuestas (hasta 5 puntos).

B4.5) Incorporación de la perspectiva de género en el diseño, desarrollo y evaluación del programa (ej.: uso de materiales que no reproduzcan estereotipos sexistas; uso de un lenguaje no sexista; visualización de las situaciones de desigualdad entre mujeres y hombres dentro de los colectivos específicos destinatarios de la actividad; desagregación de los datos por sexo; promover la participación igualitaria de mujeres y hombres en las actividades planificadas; promoción de procesos de concienciación o toma de conciencia que permitan visualizar las causas de las desigualdades entre mujeres y hombres dentro de los colectivos específicos y las formas de combatirlas, etc.) (hasta 10 puntos).

B4.6) Participación de personas inmigrantes o de minorías étnicas en el diseño, desarrollo y evaluación del programa (hasta 5 puntos).

TAULA OSAGARRIA- DIRU LAGUNTZA ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK – ELKARTEAK

| A) ELKARTE ESKATZAILEAREN EZAUGARRIAK ( 50 PUNTURAINO) | | | |
|---|---|---|---|
| A1) Egoitzaren kokalekua | Legazpi | Mankomunitatea | Gipuzkoa |
| | 17 | 5 | 1 |
| A2)Bakarrik egoitzaren kokalekua Legazpitik kanpo dutenentzat: Legazpiko bazkideak ditu edo zuzendaritzan edo ekintzak bultzatzen dituztenen artean Legazpiarrak daude. | BAI | EZ | |
| | 5 | 0 | |
| A3)Ibilbidea: Erakundea eratu zenetik Legazpin elkarteak lan egin dituen urteak. | 15 urte baino + | 10 urte baino + | 5 urte baino + |
| | 3 | 2 | 1 |
| A4)Elkartearen ibilbidea berdintasun politiketan | 4 Jarduera baino + | 3 Jarduera | 2 Jarduera |
| | 13 | 6 | 2 |
| A5)Aurreko urteetan diru laguntzak jaso izana | 6 urte baino + | 4 urte baino + | 2 urte baino + |
| | 3 | 2 | 1 |
| A6)Tamaina / Ordezkaritza: Legazpiko bazkide-kopurua ( Kuota ordaintzen dutenak) : | 200 kide edo + | 100 kide edo + | 50 kide edo + |
| | 3 | 2 | 1 |

EK\CV GAO-I-2019-02387

| | | | |
|---|---|---|---|
| A7) Kideen ezaugarriak: lehentasuna ezintasunen bat duten pertsonak eta familiako kideak, baztertuak izateko arriskua dutena... | Denak ezaugarriekin | Erdiak ezaugarriekin | Denak gabe |
| | 6 | 3 | 0 |
| A8)Proportzionaltasuna norberaren baliabideen, jasotako beste diru-laguntzen eta udalerri honetan eskatutako diru laguntzaren aurrekontu osoaren artean. | Udalari eskaera Gastuaren % 10 edo + | Udalari eskaera Gastuaren % 50 edo + | Udalari eskaera Gastuaren % 90 edo + |
| | 5 | 3 | 1 |
| B) PROPOSATUTAKO PROGRAMAREN EZAUGARRIAK | | | |
| B1) SENTSIBILIZAZIO-EKINTZAK (50 PUNTURAINO) | | | |
| B1.1) Bat etortzea sentsibilizazio-gaia eta Gizarte Zerbitzuetan lehentasuna duten taldeen arazoak | Gizarte Arazoa | Sozio Sanitarioa | Besteak |
| | 10 | 5 | 0 |
| B1.2) Lankidetza eta koordinazioa elkarte desberdinen artean ekintza aurrera eramateko. | 3 elkarte | 2 elkarte | Elkarte 1 |
| | 10 | 5 | 0 |
| B1.3) Proportzionaltasuna norbere baliabideen, beste diru-laguntzen eta aurkeztutako gastuaren aurrekontuaren artean. | Udalari eskaera Gastuaren % 10 edo + | Udalari eskaera Gastuaren % 50 edo + | Udalari eskaera Gastuaren % 90 edo + |
| | 10 | 5 | 1 |
| B1.4) Programaren diseinuan, garapenean eta bilakaeran genero-ikuspegia sartzea. | 4 Jarduera baino + | 2 Jarduera | Jarduera 1 |
| | 10 | 5 | 1 |
| B1.5) Programa diseinatzean, garatzean eta ebaluatzean etorkinek edo gutxiengo etnikoko kideek parte hartzea. | 3 fasetan | 2 fasetan | Fase batean |
| | 5 | 3 | 1 |
| B1.6) Herrian proposatutakoaren antzeko ekintzak daude | EZ | BAI | |
| | 5 | 0 | |
| B2) INFORMAZIO-, PRESTAKUNTZA- ETA/EDO GIZARTERATZE-EKINTZAK (60 PUNTURAINO) | | | |
| B2.1) Bat etortzea informazio, prestakuntza eta/edo gizarteratze-gaia eta Gizarte Zerbitzuetan lehentasuna duten taldeen arazoekin | Gizarte Arazoa | Sozio Sanitarioa | Kontsumoa |
| | 10 | 5 | 1 |
| B2.2) Onuradunen ezaugarriak. Lehentasuna ezintasunen bat duten pertsonak eta familiako kideak, baztertuak izateko arriskua dutenak... | DENAK -rekin | ERDIA -rekin | DENAK GABE |
| | 10 | 5 | 0 |
| B2.3) Lankidetza eta koordinazio elkarte desberdinen artean ekintza aurrera eramateko. | 3 elkarte | 2 elkarte | Elkarte 1 |
| | 10 | 5 | 0 |
| B2.4) Proportzionaltasuna norberaren baliabideen, beste diru-laguntzen eta aurkeztutako gastuaren aurrekontuaren artean. | Udalari eskaera Gastuaren % 10 edo + | Udalari eskaera Gastuaren % 50 edo + | Udalari eskaera Gastuaren % 90 edo + |
| | 10 | 5 | 1 |
| B2.5) Herrian proposatutakoaren antzeko ekintzak daude | EZ | BAI | |
| | 5 | 0 | |
| B2.6) Programaren diseinuan, garapenean eta bilakaeran genero-ikuspegia sartzea. | 4 jarduera baino + | 2 jarduera | Jarduera 1 |
| | 10 | 5 | 1 |
| B2.7) Programa diseinatzean, garatzea eta ebaluatzean etorkinek edo gutxiengo etnikoko kideek parte hartzea | 3 fasetan | 2 fasetan | Fase batean |
| | 5 | 3 | 1 |
| B3) AISIALDIKO ETA GARAPEN PERTSONALERAKO EKINTZAK (50 PUNTURAINO) | | | |
| B3.1) Onuradunen ezaugarriak. Lehentasuna ezintasunen bat duten pertsonak eta familiako kideak, baztertuak izateko arriskua dutenak... | DENAK -rekin | ERDIA -rekin | DENAK GABE |
| | 10 | 5 | 0 |
| B3.2) Lankidetza eta koordinazioa elkarte desberdinen artean ekintza aurrera eramateko | 3 elkarte | 2 elkarte | Elkarte 1 |
| | 10 | 5 | 0 |

EK\CV GAO-I-2019-02387

| | | | |
|---|---|---|---|
| B3.3) Proportzionaltasuna norberaren baliabideen, beste diru laguntzen eta aurkeztutako gastuaren aurrekontuaren artean. | Udalari eskaera Gastuaren % 10 edo + | Udalari eskaera Gastuaren % 50 edo + | Udalari eskaera Gastuaren % 90 edo + |
| | 10 | 5 | 1 |
| B3.4) Herrian proposatutakoaren antzeko ekintzak daude | EZ | BAI | |
| | 5 | 0 | |
| B3.5) Programaren diseinuan, garapenean eta bilakaeran genero-ikuspegia sartzea. | 4 jarduera baino + | 2 jarduera | Jarduera 1 |
| | 10 | 5 | 1 |
| B3.6) Programa diseinatzean, garatzea eta ebaluatzean etorkinek edo gutxiengo etnikoko kideek parte hartzea | 3 fasetan | 2 fasetan | Fase batean |
| | 5 | 3 | 1 |
| B4) BESTELAKO EKINTZAK ( 50 PUNTURAINO) | | | |
| B4.1) Onuradunen ezaugarriak. Lehentasuna ezintasunen bat duten pertsonak eta familiako kideak, baztertuak izateko arriskua dutenak... | DENAK -rekin | ERDIA -rekin | DENAK GABE |
| | 10 | 5 | 0 |
| B4.2) Lankidetza eta koordinazioa elkarte desberdinen artean ekintza aurrera eramateko | 3 elkarte | 2 elkarte | Elkarte 1 |
| | 10 | 5 | 0 |
| B4.3) Proportzionaltasuna norberaren baliabideen, beste diru laguntzen eta aurkeztutako gastuaren aurrekontuaren artean. | Udalari eskaera Gastuaren % 10 edo + | Udalari eskaera Gastuaren % 50 edo + | Udalari eskaera Gastuaren % 90 edo + |
| | 10 | 5 | 1 |
| B4.4) Herrian proposatutakoaren antzeko ekintzak daude | EZ | BAI | |
| | 5 | 0 | |
| B4.5) Programaren diseinuan, garapenean eta bilakaeran genero-ikuspegia sartzea. | 4 jarduera baino + | 2 jarduera | Jarduera 1 |
| | 10 | 5 | 1 |
| B4.6) Programa diseinatzean, garatzea eta ebaluatzean etorkinek edo gutxiengo etnikoko kideek parte hartzea | 3 fasetan | 2 fasetan | Fase batean |
| | 5 | 3 | 1 |

TABLA COMPLEMENTARIA- CRITERIOS DE VALORACIÓN SOLICITUDES-ASOCIACIONES

| | | | |
|---|---|---|---|
| A) CARACTERÍSTICAS DE LA ENTIDAD SOLICITANTE (HASTA 50 PUNTOS) | | | |
| A1) Ubicación sede o delegación | Legazpi | Mancomunidad | Gipuzkoa |
| | 17 | 5 | 1 |
| A2) Solo para entidades con sede fuera de Legazpi: Tienen socios/as de Legazpi o hay legazpiarras entre las personas integrantes de la junta directiva o promotores de la actividad. | SI | NO | |
| | 5 | 0 | |
| A3) Trayectoria: Años continuados de trabajo en Legazpi desde la constitución de la entidad: | + de 15 | + de 10 | + de 5 |
| | 3 | 2 | 1 |
| A4) Trayectoria de la entidad en políticas de igualdad | + 4 actuación | 3 actuaciones | 2 actuaciones |
| | 13 | 6 | 2 |
| A5) Subvencionado con continuidad en años anteriores | + de 6 | + de 4 | + de 2 |
| | 3 | 2 | 1 |
| A6) Volumen / representatividad: Nº real de Socios y socias de Legazpi ( que paguen cuota): | ≥ de 200socios | ≥ de 100socios | ≥ de 50socios |
| | 3 | 2 | 1 |
| A7) Características de las personas socias: Prioridad Personas y familiares con discapacidad, riesgo de exclusión etc. | TODOS CON | ½ CON | TODOS SIN |
| | 6 | 3 | 0 |
| A8) Proporcionalidad entre recursos propios (presupuesto general), otras subvenciones recibidas y el presupuesto total de subvención solicitado en este Municipio. | Solicita al Ayto. ≤ del 10 % del Gasto | Solicita al Ayto. ≤ del 50 % del Gasto | Solicita al Ayto. ≤ del 90 % del Gasto |
| | 5 | 3 | 1 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| B) CARACTERÍSTICAS DEL PROGRAMA PROPUESTO | | | |
| B1) ACTIVIDAD DE SENSIBILIZACIÓN ( HASTA 50 PUNTOS) | | | |
